Aurreko memorian esan genuenez, ezinenez egin genion aurre 2018. urteari, ez baikenekien nolako atarramentua izanen zuen Nafarroako Gobernuarekiko harreman esparru berriak. Gaur egun, lez hauek idatzi ditugun honetan, esan dezakegu badugula hitzarmen bat, eta, horri esker, nolabaiteko egonkortasuna izanen dugula heldu diren urteetan. Horregatik, eskerrak eman dizkiogu Osasun Departamentuari, berriz gure entitateari erakutsitako konfiantzagatik.

Azkenik, argitalpen honen helburu den urte honetan, gure tratamenduen eskaintza sendotu dugu mendekotasunekin loturiko eskaera berriei heltzeko, jokoaren mendekotasunak jotako pertsonenekin lotutakoak gehienbat, gero eta gehiago baitira online jokoaren eta kirol apustuen ondorioz. Gure eskerrik beroena eman nahi diogu Caja Navarra Fundazioari eta “la Caixa” fundazioaren **Innova Social programari**, proiektu honetarako eman duten laguntzagatik.

Lan honetan guztian, erabakigarria da, zinez, jende askoren ahalegina eta lan saiatu eta eskuzabala: patronatuko ki-deak, profesionalen taldea, boluntarioak eta gure zerbitzuen erabiltzaileak eta haien familiak.

Eginkizun eta zeregin berriak ditugu, beraz, 2019. urtean, Berdintasun Planari segida ematea adibidez, tratamenduen eskaintza generoko ikuspegiarekin eskaintzea, erabiltzaileen parte-hartzea bultzatzea, eta beste hainbat helburu. Horien guztien berri emanen dizuegu gure hurrengo txostenean.

Memoria hau interesgarria izanen zaizulakoan.

2 NAFARROAKO

Gizakia Helburu Fundazioa

IZAERA

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa gizarte intereseko eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, eta 1990an sortu zen Nafarroan droga-mendekotasuna jasaten zuten lagunen beharrei erantzuten saiatzeko. Gure erakundea eta gure zerbitzuak eboluzionatuz joan dira urteetan zehar, eta etengabe egokituz joan dira mendekotasunekin lotuta sortzen ziren beharretara eta arlo horretako ezagutza zientifikoaren aurrerapenetara.

Estatu mailako Gizaki Helburu Elkartearen partaideak gara, beste 26 erakunde sustatzailerekin batera beste probintzia eta autonomia-erkidego batzuetan.

✳ Egitekoa

Nafarroako Gizarte Helburu Fundazioak honako xede hauek ditu: mendekotasunak eta harekin lotutako ondorioek sortzen dituzten arazoan in-guruko prebentzioa, gizarte-sentsibilizazioa, tratamendu integrala eta ikerketa.

✳ Balioak

- Elkartasuna
- Lankidetzatza
- Profesionaltasuna
- Parte-hartzea
- Baikortasun terapeutikoa
- Gardentasuna

PATRONATUA

Gure Komunitatean beren arloan ospetsuak diren 8 lagun partikularrek osatzen dute. Lagun horiek ere boluntarioak dira, gure estatutuek ezarritakoari jarraituz ("Patronoaren kargua erabat doakoa izango da". NGHFaren Estatutuetako 10. art.).

PATRONATUKO KIDEAK

Lehendakaria

José María Jiménez Nespereira

Merkataritzako irakaslea. Kontu-ikuskari eta zerga-aholkulari ohia.

Idazkaria

Alfonso García Liberal

Nafarroako Laboral Kutxako lurralde-zuzendari ohia.

Kideak

José María Aracama Yoldi

Cementos Portland Valderrivaseko lehendakariordea.

Jose Antonio Arrieta Garnica

Arpa Abogados y Consultores SMko lehendakaria.

María Paz Benito Osés

Iruñeko Instrukzioko 3. Epaitegiko magistratu titularra.

Iruñeko epaile dekanoa.

Jose Miguel Del Amo Villarias

Aragoiko, Nafarroako eta Euskadiko Ingeniari Agronomoen Elkargoko ordezkaria.

Jose Javier López Goñi

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Psikologia Departamentuko irakasle titularra.

Amelia Salanueva Murguialday

Abokatua.

Programen Zuzendaritza

Alfonso Arana Marquina

Gizarte-hezitzailea.

LANTALDEA

Gure fundazioan, arlo soziosanitarioko hainbat diziplinatako 42 langile aritzen dira, eta honako hauekin lotutako lanak egiten dituzte: arreta psikoterapeutikoa, arreta medikoa, hezkuntzako arreta, laguntza soziala eta erakundearen kudeaketa. Haien eginkizunak 70 boluntarioen lanarekin osatzen dira; horiek modu eskuzabal eta altruistan ematen dituzte beren zerbitzuak, zeregin osagarri askotan (telefonoan, intendentzian...) eta erabiltzaileen oinarrizko beharrak asetzeko eginkizun askotan.

BOLUNTARIOAK

Alberto, Alejandra, Alicia, Álvaro, Amaia, Amalia, Amparo, Ángel, Aroha, Asun, Belén, Bernardo, Camila, Carlos, Carmen, Conchi, Cristina, Enrique, Feli, Fermín, Fernando, Fina, Giada, Gloria, Inma, Iñaki, Ion, Itziar, Jaione, Javier, Jesús Mari, Joaquín, Jordi, José Luis, José María, Jose, Juan, Juan Carlos, Juan Manuel, Laura, Lucía, Luis, Marijose, Magaly, Maika, Maitane, Maite, Manolo, Margarita, Marian, Mentxu, Miguel, Mikel, Natalia, Pablo, Paketxu, Patricia, Patxi, Perico, Pibe, Pilar, Rosy, Saioa, Santi, Sergio, Silvia, Soko, Sole, Tere, Vicky, Víctor.

LANGILEAK

Adriana, Aitziber, Alfí, Alicia, Alfonso, Amaya, Ana, Andrea, Ane, Belén, Clara, Cristina, Dani, Elena, Estibaliz, Federica, Fernando, Garikoitz, Gorka, Ihintxa, Iñaki, Isabel, Itziar, Ioseba, Jacqueline, Javier, Jenny, Josune, Karmele, Leire, Lucía, Maitane, Maite, Manuel, Marijose, María, M.^a Isabel, Marisa, Mikel, Miriam, Nahia, Olga, Pepa, Raquel, Sara, Sonia, Tatiana.



TERE FLÓREZ ECHEVERRÍA

Aurten agur esan digu **Tere Flórez Echeverriak**, boluntarioen taldean 28 urte eman eta gero. Tere, programaren hasieran, harreran hasi zen, eta orain arte aritu da jo eta su. Osasunez pattal egonagatik, oinaze handiak pasaturik ere, ez digu hutsik egin, eta laguntza izan da ailegatzen zenarentzat.

Eskerrik asko, Tere! Gure Fundazioak zure izena darama!

JESÚS MARI ZABALETA

Uztailaren hiruan **Jesús Mari Zabaleta** hil zen. Ingelesa erakusten zuen Komunitate Terapeutikoan. Eskuzabal eta xalo, apal. Hura ezagutzeko ohorea izan dugu, eta gure esker ona adierazi beharrean gaudea komunitatean egin zuenagatik eta bere jokaeragatik. Jesus Mariren moduko pertsonak sortzen dute bizia, eraikitzen dute komunitatea. Fundazioaren bihotzean betiko geldituko dira haren eskuzabaltasuna, bizi-poza eta umiltasuna. Eskerrak ematen ditugu haren bizitzagatik. Hari esker gure erabiltzaileek beste aukera bat izan dute.


Goian bego. Esker ona besterik ez da sortzen gure barrenean.

PROGRAMAK 3

Tratamendu programak eta zerbitzuak



Arreta emateko eskaera berria



1. IRUDIA Zerbitzuak eta programak

3.1. TRATAMENDU BAT BI BALIABIDE

Mendekotasunak artatzeko bi baliabide mota ditugu:

Harrera eta Hasierako Balorazioa egiteko Zerbitzua

Nafarroako "Gizakia Helburu" proiektuaren fundazioak tratamendu pertsonalizatuetarako ibilbideak eskaintzen ditu, pertsona bakoitzaren beharrei egokituak. Horretarako, tratamenduen eskaintzaren barranean zerbitzu desberdinak egoten ahal dira: baliabide anbulatorio bat (Aldatu zentro anbulatorioa), egoitza bat (Komunitate Terapeutikoa), edo biak batera.

Tratamendu alternatiba egokiena erabiltzailerarekin berarekin erabakitzen da harrera eta Hasierako Balorazioa egiteko Zerbitzuan. Zerbitzu hau tratamendu programetarako atea da, eta han egiten da kasuaren lehenbiziko balorazio bat, tratamendu mota hoberena ongi zehazteko eta diseinatzeko. Lan hori Nafarroako gizarte eta osasun zerbitzu publikoekin egiten

da (gehienbat osasun mentaleko sarearekin), betiere problema duen pertsonaren fami-

liakoak edo lagunak prozesuan sartzerantz animatuz, ahal bada bederen.

ARRETA JASOTAKO PERTSONAK	EGINDAKO EBALUZIOAK	DIRU-SARRERA BERRIAK
340	226	114

1. TAULA Jardueren adierazleak Harrerako eta Hasierako Balorazioa egiteko Zerbitzua (2018)

GIZAKIA HELBURU Komunitate Terapeutikoa

“Gizakia Helburu” proiektuak Lizarran duen **komunitate terapeutikoa** egokia da beren egoera sozial eta pertsonalarengatik edo bere mendekotasunaren ezaugarriengatik ohiko ingurua utzi eta egoitza-tratamendu labur edo luzea egin behar duten lagunentzat. 48 pertsonarentzako tokia dago. 35 lagunentzako arreta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamenduari hitzartua dago.

“Gizakia Helburu” proiektuaren Komunitate Terapeutikoaren programak hasierako fase bat du, ambulatorioa, iraupen finkorik gabea, baina kasu gehienetan hilabete baino gutxiagokoa. Honako hauek dira fase horri dagozkion helburuak: funtzionamendua ezagutzeta, egoitzan sartzeko gutxieneko egonkortasun fisiko eta pertsonala lortzea eta horretarako beharrezkoak diren tramiteak egitea.

JARDUERA-ADIERAZLEAK	2014	2015	2016	2017	2018
Programan emandako arreta, guztira	146	160	151	150	159
Egoitzara sartu gabe arreta jasotako pertsonak	41	43	49	44	42
KTan emandako arreta, guztira	105	117	102	106	117
KTko pertsonen kopurua urtarrilaren 1ean	41	45	44	37	41
KTra sartutako lagunak	72	72	64	74	76
Egoitzara sartu direnen kopurua	42	48	44	45	58
Egoitzara berriz sartu direnen kopurua	30	24	20	19	18
KTtik atera direnen kopurua	69	73	71	70	75
Prozesuan alta hartu dutenen kopurua	38	33	33	33	37
Deribazioen kopurua	4	5	6	5	1
Kanporatzeen kopurua	8	8	7	10	4
Borondatez hartutako alten kopurua	18	26	21	21	30
Bestelakoak	1	1	3	1	3
KTko erabilzailen kopurua abenduaren 1ean	44	44	38	41	42

2. TAULA Komunitate Terapeutikoaren 2018ko jardueren adierazleak

ALDATU Zentro Anbulatorioa

ALDATU Zentro Anbulatorioa Iruñean dago, eta, han, pertsonak beren tratamendua, osorik edo zati bat, beren eguneroko jarduerarekin batera egiten ahal dute, banakako

elkarrizketak eginez eta taldetan parte hartuz. 120 pertsona da gure muga; horietatik 24 Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuarekin daude hitzartuak.

JARDUERA ADIERAZLEAK	2014	2015	2016	2017	2018
Arretaldi-kopurua, guztira	239	235	235	254	258
Erabiltzaileen kopurua urtarilaren 1ean	115	115	110	115	119
Sarrerak	124	120	125	139	139
Egoitzara sartu direnen kopurua	96	84	93	93	91
Egoitzara berriz sartu direnen kopurua	28	36	32	46	48
Irteerak	124	127	107	135	127
Alta terapeutikoen kopurua	47	47	56	53	41
Osasun Zerbitzuetara egindako deribazioen kopurua	6	9	2	1	6
Nafarroako GHren KTra egindako deribazioen kopurua	8	17	10	13	14
Tratamenduari egindako ukoen kopurua	14	12	3	13	15
Borondatez hartutako alten kopurua	45	39	28	48	49
Bestelakoak (espetxera sartzea, hildakoak)	4	3	8	7	2
Erabiltzaileen kopurua abenduaren 1ean	115	109	128	119	129

3. TAULA Aldaturen 2018ko jarduera-adierazleak

3.2. TRATAMENDUA SENDOTZEKO ZERBITZUAK

Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzuaz gainera, Familiari Laguntzeko Zerbitzua ere badugu:

Familiari Laguntzarako Zerbitzua

“Gizakia Helburu” proiektuan familiarekin eta hurbilekoekin egindako lanak berebiziko garrantzia du, eta prozesu osoan zehar bakarka zein taldekako jarduerak egiten dira. Gainera, ukitutako familiako kidea

tratamendura hurbildu ezin izan duten familiak eta hurbilekoak ere zaintzen ditu zerbitzuak; babesa eta prestakuntza ematen die hori lortzeko eta etxean drogekiko arazo horri aurre egiten laguntzeko.

FAMILIA-LAGUNTZARAKO ZERBITZUA	
Arreta jasotako pertsonak, GUZTIRA	554
Komunitate Terapeutikoan dauden lagunen hurbileko pertsonak (atendituak)	542
Tratamenduan dagoen erabiltzailerik ez duten familiak	12
Egindako familia-taldeak	261
Talde psikohezitzaileak	174
Familien topaketak	56
Familien eta bikoteen anamnesia	31

4. TAULA Familiari Laguntzako Zerbitzuaren 2018ko jardueraren adierazleak

Iruñeko Espetxean esku hartzeko Zerbitzua

Banakako arreta ematen zaie espetxean dauden pertsoneri, banakako elkarrizketen bidez, NGHFaren tratamenduetan sartzea

sustatzeko eta errazteko, zigorra espetxean betetzearen alternatiba gisa, legalki posible izanez gero.

ESPETXEAREN 2018KO JARDUERAREN ADIERAZLEAK	
Iruñeko Espetxera egindako bisitaldiak	28
Atenditutako pertsonak	45
Egindako elkarrizketak	203
Komunitate Terapeutikoan sartu diren pertsonak	8

5. TAULA Espetxearen 2018ko jardueraren adierazleak

Gizartean eta lan-munduan sartzeko Zerbitzua

Tratamenduan daude langabeak lan-munduan sartzeko erraztasunak ematea du helburua, baita enplegu ez-egonkorra dutenen enplegua hobetzea ere. Horregatik, lau ekintza mota hauek eskaintzen ditu:

- * Diagnostikoa eta gaitasunak ebaluatzeko ekintzak
- * Lan-orientazioa emateko eta lana bilatzen laguntzeko ekintzak
- * Lanean hasi aurreko gaikuntza-ekintzak

* Enpresen azterketa eta haiekiko bitartekaritza egiteko ekintzak

Bi programatan biltzen dira ekintza horiek:

**ISOLA proiektua (Mendekotasun-problema-
ren bat duten pertsonak Gizartean eta lan-
munduan sartzeko proiektua)**, Europar Gizar-
te Funtzak finantzatua eta "Gizakia Helburu"
elkartearen zentro guztietan garatua.

POISES programa (Inklusio Sozialeko eta Ekonomia Sozialeko Programa Operatiboa), Nafarroako Lan Zerbitzua–Nafar Lansarek egindako deialditik abiatua.

2018an, honako hauek izan dira jarduera nagusiak:

- * 91 ebaluazio soziolaboral egin dira eta 82 ibilbide pertsonalizatu.
- * 226 elkarriketa programatu dira, eta horietatik %90,5 joan dira elkarriketetara.
- * Artatutako pertsonen %92,5ek lana aktiboki bilatzeko gunearen zerbitzua erabili du lan-eskaintzak bilatzeko eta horietan izena emateko, zenbait enplegu-ataritan,

Boluntarioritza Zerbitzua



NGHFaren Boluntarioritza Planak honako helburu hau biltzen du, besteak beste, bere jarduera eta zerbitzuetarako: tratamenduan dauden pertsonen oinarrizko beharrei erantzuten laguntzea, batez ere familia-laguntzarik ez badute. Horregatik, boluntarioek zenbait laguntza-zerbitzu ematen dituzte:

- * Familia-laguntzarik ez duten pertsoneri espetxean eta ospitalean lagun egitea.
- * Komunitate Terapeutikoko Harrera eta Hasiarako Diagnostikoa egiteko fasean lagun egitea.
- * Komunitate Terapeutikotik egindako irteeretan laguntzea, gestioak egiteko (medikua, tramite administratiboak, etab.).
- * Aisialdiko eta astialdiko ekintzak antolatzea.
- * Helduentzako heziketarako laguntza.
- * Beste zerbitzu batzuk.

baita curriculumak idazteko eta lan-munduari buruzko informazioa lortzeko ere. Zerbitzuan parte hartu duten lagunen %81,0 pozik dago zerbitzuarekin.

* Hiru gaikuntza-lantegi egin dira:

- **Gaitasun sozialak lantzeko lantegi bat:** 48 saio egin dira, eta, guztira, 72 pres-takuntza-ordu; 24 lagunek hartu dute parte.
- **Estresa kudeatzeko lantegia:** 10 saio egin dira, 10 orduz, eta 8 lagunek hartu dute parte.

Horrez gainera, boluntarioek beste funtzio askotan laguntzen dute, hala nola Suspertu programan atenditutako gazteen eskola-laguntzan edo profesionalak ekarpen gisa egindako lan espezializatu askotan (itzulpenak, dokumentuak digitalizatzea, komunikazioa, eta abar).

2017. urteaz geroztik, Europako Boluntarioritza Zerbitzuan hartzen dugu parte. Europar Batasunaren ekimen bat da, gazteen artean boluntarioritza bultzatzekoa. Proiektu honetan parte hartzen ari garen aldetik, 2018. urtean bi boluntario izan ditugu Italiatik etorriak, gure entitatearen zenbait zereginetan lagundu dutenak.

3.3. ATENDITUTAKO PERTSONEN EZAUGARRIAK

Ondotik, 2018an tratamenduetan izandako onarpenei dagozkien datuak aurkeztuko ditugu, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak kudeatutako bi bitartekoak aintzat hartuta.


Eskaeraren arrazoi den substantzia nagusia



Alkohola da orain ere erabiltzaileek eskaera-arrazoi modura aipatzen duten substantzia nagusia. Horren ondotik, kokaina, anfetaminak eta kannabisa.


Datu hauek tratamendua eskatu duten pertsonen aipatu duten substantzia nagusia da. Dena dela, gehienetan, problema aztertuta, kasuen portzentaje handi-handian aldi berean sub-

stantzia bat baino gehiago kontsumitzen direla ikusten dugu, diagnostikoan horietako batzuk abusutzat eta beste batzuk mendekotasun-tzat hartzen ahal badira ere. Horrela, adibidez, 2018an zentro anbulatorioan atenditutako pertsonen % 76,9k substantzia bat baino gehiagorekin zuen problema. Maizenik, alkohola eta kannabisa agertu ohi da problema sortzen duen substantzia nagusiaren lagun.




1. GRAFIKOA Eskaeraren arrazoi den substantzia nagusia (atentzioen % - 2018. urtea)


Generoaren arabera alderatuz, alkohola da eskaera egiteko arrazoi nagusia bai emakumeetan bai gizoneetan, nahiz eta, gizonen kasuan, denak kontuan hartuta (kokaina, anfetaminak, speed...) gairatu egiten duten alkohola droga nagusi gisara. Emakumeen kasuan, berriz, alkohola da, nabarmen, eskaera-arrazoi nagusia: kasuen %59.



2. GRAFIKOA Problema substantzietan, eskaera egon edo ez egon, GNS-10-ren irizpideen arabera (Aldatu, 2018)



3. GRAFIKOA Eskaeraren arrazoi den substantzia nagusia, generoen arabera



4. GRAFIKOA Eskaeraren arrazoi den substantzia nagusia, programen arabera (2018)

Substantziarik gabeko adikzioak: joko patologikoa

2018an bi aldetatik heldu diogu jokoaren problemari. Batetik, programa hasi zeinetik, 21 pertsona atenditu ditugu, adikzio horretarako laguntza eskatu baitute. Bestetik, drogen kontsumoaren gaitiko tratamenduetan ere sortu dugu jokoaren gaineko lanketa, ohartu baikara jokoaren prebalentzia tasa altuak daudela, eta joko patologikoak problemak sortzen dituela drogen kontsumoagatik laguntza eskatzen duten pertsonen artean.

Apiriletik aurrera, ikusi dugu gure programetako 218 pertsonak dutela problema jokoarekin ere, problema-iturri den jokoarekin eta joko patologikoarekin. Guztira, gure zentroetan atenditutako pertsonen %34,4 sufritzen ari ziren jokoaren problema, edozein izanik ere eskaeraren arrazoia.

2018ko apirilean, tratamendu lerro espezifiko bat bultzatu dugu: joko patologikoarena. Iaz hasi genuen, esperimendu gisa. Horretarako, laguntzaile batzuk izan ditugu: Fundación Bancaria Caja Navarra, Fundación Bancaria La Caixa (INNOVA SOCIAL programaren bidez).



Obra Social
Fundación "la Caixa"




FUNDACIÓN
CAJANAVARRA




innovasocial

DIAGNOSTIKOA	ALDATU ZENTROA EBALUAZIOAK: 98		K. TERAPEUTIKOA EBALUAZIOAK: 120		GUZTIRA EBALUAZIOAK: 218	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
Problemarik gabe	56	%57,1	87	%72,5	143	%65,6
Jokoaren adikzioa	13	%13,3	7	%5,8	20	%9,2
Joko patologikoa	29	%29,6	26	%21,7	55	%25,2
Guztira problemekin	42	%42,9	33	%27,5	75	%34,4

6. TAULA Joko problemaren eta joko patologikoaren prebentzioa programaren arabera




5. GRAFIKOA Generoren araberako banaketa




6. GRAFIKOA Batez besteko adina programen arabera (2018)

Legend: Lanarekin (Green), Lanik gabe (Grey), Besterik (Purple), Lanarekin (bajan) (Light Green), Lanik gabe (Dark Grey), Besterik (Red), Ikaslea-oposizioetan (Red), Ezintasuna-pentsioduna (Orange)



7. GRAFIKOA ALDATU zentro anbulatorioan daudenen lan egoera (2018)



8. GRAFIKOA Komunitateko terapeutikoan daudenen lan egoera (2018)

4 SUSPERTU

Nerabeei eta haien familiei laguntzeko programa

Suspertu Nafarroako Gizakia Helburraren erantzuna da gazteen artean prebentzio eraginkor bat lortzeko. Lan trinkoa proposatzen du arriskuko jokabideak dituzten gazteekin aritzeko, haien familiekin eta gertukoekin, baita zenbait baliabideren bidez gazte horiei arreta ematen dieten pertsonekin ere, prebentzioa egiten laguntzeko betiere.

Suspertuk Arreta Zuzeneko Programa bat eskaintzen die nerabeei eta haien familiei. Eta,

halaber, prebentzio zerbitzua ere bada, hala eskatzen dutenei laguntza, hezkuntza eta aholkua emateko.

Suspertu Arreta Zuzeneko Programak arreta trinkoa ematen die nerabeei nahiz haien familiei (normalean gurasoak izaten dira). Prozesuan zehar, elkarrekin koordinatuta dauden profesional independenteek ematen diete arreta. Halaber, gurasoekin bakarrik lan egiteko aukera ematen dugu, baldin eta beren seme-alabak programara ekartzea lortzen ez badute.

	NERABEAK	FAMILIAK
Pertsona kopurua urtarilaren 1ean	28	36
Arreta berriak	79	102
Programan sartu direnak	72	75
Programatik atera direnak	74	86
Altak	24	24
Programa bukatu dutenak	16	26
Borondatez hartutako alden kopurua	20	17
Beste norabait bideratuak	6	8
Baldintzak bete ez diren kasuak	8	11
Arreta jasotakoak, guztira	107	138
Programan daudenak, guztira	100	111
Pertsona kopurua urtarilaren 1ean	26	27

7. TAULA Arreta Zuzeneko Programa - 2018ko Jarduera

Guraso-eskolak

Gurasoek beren seme-alaba nerabeak hezteko duten gaitasuna indartu nahi du guraso-

eskolak, eta, bereziki, arriskuko jokaerei aurre egiteko gaitasuna. 2018an, bi edizio egin ditugu eta 80 familia berri izan ditugu.


TALDEA	HASIERAKO DATA	BUKAERAKO DATA	FAMILIAK
41. TALDEA	2017-10-02	2018-03-12	17
42. TALDEA	2018-01-23	2018-06-19	21
43. TALDEA (1. moduloa)	2018-09-10	2018-10-15	26
43. TALDEA (2. moduloa)	2018-10-22	2018-12-10	33

8. TAULA Guraso-eskolak

Kanpoan egindako prebentzio-jarduerak

2018an nabarmen egin du gora ikastetxeetatik ailegatzen zaizkigun jarduera-eskaeren kopuruak. Ondorioz, aurreko urtearen aldean, halako bi izan dira gure esku-hartzeak.

Gainera, eta Innova Social programak finantzatuko programaren barrenean (Caja Navarrak eta La Caixak sustatua), apustuekin eta online jokoeekin loturiko programei aurrea hartzeko jarduerak bultzatu ditugu.



9. GRAFIKOA Prebentzio orduak (kanpoan) (Konparazioa 2017-2018)

JARDUERA	KOP.
Egin ditugun prebentzio lantegiak	76
Parte hartu duten ikastetxeak	19
Parte hartu duten nerabeak	1.920
Parte hartu duten bitartekariak	151

9. TAULA Prebentziorako jarduerak kanpoan

IKASKETAK	%
Diplomatura	38,74
LH 1	41,68
LH 2	39,15
Graduatua	30,50
Lizentziatura	16,90
Lehen ikasketak	5,90

10. TAULA Gurasoen ikasketa-maila

	KOP.	%
Drogen kontsumoa	51	70,8
Familia-gatazka	34	47,2
Eskola-porrota	12	16,7
Bide judiziala	2	2,8
Bestelakoak:	16	22,2
Oldarkortasuna-indarkeria	3	
Autoestimu eskasa / Gogo-aldarte eskasa	2	
Sexu jokabide arriskutsuak	1	
Eskolako absentismoa	4	
Apustuak, teknologia berrien abusua	4	
Beste batzuk (lapurretak, isunak)	2	

11. TAULA Programara etortzeko eskaera/arrazoi nagusia

Artatutako nerabeen ezaugarriak

Batez besteko adina

16,01



ADINA
16,23



ADINA
14,70

Generoa



MUTILAK
%86,11



NESKAK
%13,89

Artatutako familien ezaugarriak

Batez besteko adina

48,62



ADINA
49,98



ADINA
48,03

Generoa



GIZONAK
%56



EMAKUMEAK
%48

Okupazioa

%79,2 ikasten ari da

%6,9k ez du okupaziorik

%0,0 lanean ari da


TUTERAKO 5

eta Erriberako Artatze Zentroa



Tuteran eta Erriberan Mendekotasunak Artatzeko Fundazioak (FAATR) honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua, Komunitate Terapeutikoan Sartzen Prestatzeko eta erabiltzailea baliabide hori erabiltzen ari den bitartean Familiari Jarraipena egiteko zerbitzua, Helduentzako Programa Anbulatorio Trinkoa eta Gazte Programa. Zerbitzu horiek guztiak Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren programa eta zerbitzu guztiekin koordinatuta ematen dira.


Pertsonaren batek egoitza batean egonaldia egitea beharrezkoa badu, Nafarroakoa Gizakia Helburu Fundazioko Komunitate Terapeutikora bideratuko da.



2018an, programa eta zerbitzu guztietan, 433 laguni eman diegu arreta modu zuzenean, honako taula honetan erakusten den bezala.


PROGRAMA	2017	2018
Harrerarako eta Hasierako Diagnostikorako Zerbitzua	210	258
Helduentzako Programa Anbulatorio Trinkoa	82	95
Komunitate Terapeutikorako Prestatzeko eta Jarraipena egiteko Programa	18	10
Gazte Programa - Nerabeak	33	30
Gazte Programa - Familiak	43	40
GUZTIRA	386	433

12. TAULA 2018an Tuterako Gizakia Helburu proiektuan arreta jasotako lagunak, programen arabera




10. GRAFIKOA Tratamendu programa egiteko eskaeraren arrazoi nagusia

■ Gizonak ■ Emakumeak



Gizonak **Guztira** Emakumeak



11. GRAFIKOA Banaketa generoen arabera

3. IRUDIA Batez besteko adina

ENPRESAK 6

Enpresekin Lankidetzan Aritzeko Zerbitua

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak zerbitzu bat eskaintzen die **enpresei eta lantokiei lan-esparruan alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoa prebenitzeko eta hari heltzeko**. Lankidetzeta hori lankidetzeta-hitzarmenen bidez egiten da, eta, horiei esker, enpresek modu eraginkorragoan esku hartzen ahal dute alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoaren arloan, eta, bide batez, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa gauzatzen dute gizarte-ekintzako erakunde batekin batera.

Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzeak ondorio garrantzitsuak ditu lan-arloan, eta, askotan, arriskuan jartzen ahal ditu langileen osasuna eta segurtasuna, baita enpresaren produktibitatea ere (laneko istripuak, eritasun-bajak, zehapen-espeditenteak, absentismoa eta abar). Horregatik, behin eta berriz aipatzen da komenigarria dela enpresetan drogen kontsumoa prebenitzeko eta hari heltzeko planak sustatzea tartean diren alderdi guztientzat onurak ekartzeko asmoz.

Mendekotasunaren tratamenduaren ikuspegitik, gure esperientziak erakutsi digu, halaber, ezen, baldin eta arazo hori duten lagunek lanari eusteko edo lanera bueltatzeko itxaropena izaten badute eta enpresaren babesa ere badute, esku-hartzearen pronostikoa nabarmen hobea dela.

Lan-arloko **Esku-hartzeko Planak** modu bateratu eta adostuan diseinatu behar dituzte enpresako ordezkariak eta langileen ordezkariak,

teknikariak koordinatuta eta, ukitutako langileei dagokienez, konfidentzialtasuna eta borondatezkotasuna bermatuz.



EKINTZAK

Testuinguru horretan, Nafarroako "Gizakia Helburu" Fundazioak honako ekintza hauek gauzatzeko aukera eskaintzen die enpresei eta erakundeei:

Aholkularitza

Alkoholaren eta drogen inguruan enpresa-akordio bat gauzatzeko eta hura lan-arriakuen prebentziorako planean sartzeko aholkularitza.

Jarduerak

Prebentzioa eta sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak egitea.

Prestakuntza

Enpresako eragile giltzarri batzuei prestakuntza ematea, besteak beste, honako gai hauetan:

- * Langileek drogak neurritz kanpo hartzearekin edo haiekiko mendekotasuna izatearekin lotutako arazoak hautematea.
- * Ukitutako pertsonekin nola lan egin erakustea, arazoak onartu eta tratamendua egiteko motibazioa izan dezaten.
- * Espezializatutako baliabideak erabiltzera bideratzea, tratamenduarekiko kolaborazioa, eta, hala badagokio, ukitutako pertsona bere lanpostuan berriz hasteko sustatze-neurriak.

Tratamendua

Ukitutako langilea bere abusu- edo mendekotasun-arazorako tratamenduan berehala hastea eta arazo horri modu trinkoan heltzea.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

2018. urtean, guztira, **22 enpresa, entitate publiko eta pribatu, enpresari-elkarte edo sindikatuk hartu dute parte aurkezpen eta aholku jardueretan.**

Drogen kontsumoarekin loturiko enpresahitzarmenak garatzeko aholku eta prestakuntza zerbitzua dela-eta, **8 enpresa edo lantokitan garatu da aholku zerbitzua.** Horiek, guztira, **3.500 langile dituzten**, eta, beraz, multzo horrengana ailegatu gara. Bestalde, gogoetarako eta trebakuntzarako bi forotan hartu dute parte.

Nafarroako zenbait enpresarekin sinatutako lankidetzahitzarmenak ondorioz, **4 pertsona ailegatu** dira gure tratamendu-programetara, adikzio-problema bat duten langileak hain zuzen.

Nafarroako "Gizakia Helburu" fundazioak enpresekiko lanean duen esperientzia "Jornada de carácter informativa y de sensibilización sobre Prevención del Consumo de Drogas en el ámbito Laboral" izeneko jardunaldian aurkeztu zen. Aipatutako jardunaldia Deustuko Unibertsitateko Drogamendekotasunen "**Deusto**" **Institutuak antolatatu zuen**, eta Bilbon egin zen, 2018ko urriaren 15ean. Hartarako gonbidapena jaso genuen, helburu horrekin antolatutako esperientzia-mahaian gure lanaren berri emateko.

2018an, azkenik, munta handiko aliantza gauzatu dugu **Mutua Navarrarekin**, helburu bikoitz batekin: batetik, Nafarroako enpresek kontzientzia hartzea nolako inpaktua duen drogen kontsumoak lan esparruan; eta, bestetik, esku hartzeko protokoloak egitea problematik horiek jotako pertsonen soluzio egokiak ematearren, pertsonen zentratuak. 2018ko urriaren 24an, lankidetzahorren fruitu, **Foro de Empresa Saludable** izenekoaren saio batean hartu genuen parte, txostengile modura, eta heldu den urtean esparru horretarako ekintza batzuk abiarazteko asmoa dugu.

IKERKUNTZA 7

Ikerkuntza, irakaskuntza eta prestakuntza



IKERKUNTZA-PROIEKTUAK

2 018. urtean, aurreko urteetan gure inguruko bi unibertsitate nagusiekiko lankidetzak hitzarmenei esker hasitako ikerketa-proiektuei eman diegu segida. Horrez gain, **“Gizakia Helburu” Behatokia** parte hartzen dugu, mendekotasunekin

arazoak dituzten eta tratamenduan dauden lagunen ezaugarriak buruzko lantaldean, eta, horren barnean, gure I+G departamentuaren bidez, 2017ko urteko txostenaren idazketan hartu dugu parte.

URTEA	IKERKETA	UNIBERTSITATEA	FINANTZATZAILEA
2016-2020	Tratu txarrak jasan dituzten eta mendekotasuna duten pazienteentzako esku-hartze programa baten eraginkortasuna	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa
2017-2019	Mendekotasuna, Nortasuna eta Frustrazioarekiko Tolerantzia: “Gizakia Helburu” proiektuari atxikitako subjektuen ikerketa neuropsikologikoa	Nafarroako Unibertsitatea	Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

13. TAULA 2018an sustatutako ikerketa-proiektuak

ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK

- * **Suicidal ideation and attempts in patients who seek treatment for substance use disorder.** López-Goñi, J.J., Fernández-Montalvo, J., Arteaga, A. y Haro, B. Año: 2018. Revista: Psychiatry Research, 269, 542-548.2046-2056. Doi: 10.1016/j.psychres.2018.08.100

Ikastaroetan, jardunaldietan eta kongresuetan izandako parte-hartzea

- * **Aristu, M.** Haurrei tratu ona emateari buruzko II. Jardunaldiaren batzorde antolatzaile eta zientifikoa: "Ampliando miradas a la infancia: diversidad de familias y crianzas". Nafarroako Gobernua. Iruña, 2018ko azaroaren 9a eta 10a.
- * **Aristu, M.** Seminario Master Intervención Social con familias en situaciones especiales. UPNA. Iruña, 2018ko otsailaren 16.
- * **Ilescas Orduña, C.** "El tratamiento de las drogodependencias en Proyecto Hombre Navarra". Medikuntzako Fakultatea. Nafarroako Unibertsitatea. Iruña, 2018ko urriaren 19a.
- * **Mendigutxia Sorabilla, G. y López-Goñi, J.J.** "Evolución de las variables de personalidad en función del sexo, de los adolescentes atendidos en el programa de prevención indicada Suspertu". IV Congreso Internacional en contextos clínicos y de la salud. Murtzia, 2018ko martxoaren 9a.
- * **Mendigutxia Sorabilla, G. y López-Goñi, J.J.** "Dimensiones de personalidad en adolescentes con conductas de riesgo. Evolución en el programa Suspertu". IV Congreso Internacional en contextos clínicos y de la salud. Murtzia, 2018ko martxoaren 9a.
- * **Moreno, G.** "Habilidades para el trabajo con Adolescentes". Osasun arloko Psicología Orokorreko Masterra. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 2018-2019 ikasturtea.
- * **Moreno, G.** "La Familia frente a las drogas; estategias para prevenir desde casa". Hirukide Fiderazioa. Bilbo, Donostia, Gasteiz. 2018ko apirila.
- * **Moreno, G.** "Prevención de los problemas relacionados con el consumo de drogas". Medikuntzako Fakultatea. Nafarroako Unibertsitatea. Iruña, 2018ko urriaren 10a.
- * **Moreno, G.** "Prevención y abordaje del consumo de alcohol y/u otras drogas en el ámbito laboral". Drogen Lan Eremuko Kontsumoaren Prebentzioari buruzko Jardunaldia. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 2018ko urriaren 15a.



DOKTORETZA-TESIAK

2 018an, idazteko prozesuan dago Nafarroako “Gizakia Helburu” proiektuaren fundazioko langileek aurkeztutako zortzigarren doktoretza-tesia:

EGILEA	IZENBURUA	IRAKURTZE-DATA
Mendigutxia Sorabilla, Garikoitz	“Arrisku-egoeran dauden nerabeen familiekin esku hartzeko prebentzio-programa baten ebaluazioa”	--

14. TAULA 2018an irakurritako doktorego-tesiak



PRAKTIKAK EGITEKO PLAZA KOPURUA

Aurreko urteetan bezala, zenbait unibertsitatekin eta prestakuntza-zentrotarekin egin ditugu hitzarmenak, ikasleek praktikak gure programetan egin ditzaten; hala, profesional berriei, gure ezagutza partekatzen dugu eta gizarteari ere ekarpena egiten diogu espezialitate soziosanitarioetako ikasle gazteen prestakuntzan.

Berrikuntza modura, 2018-2019 ikasturtean Osasun arloko Psikologia Orokorreko Masterrako praktikak egiteko aukera eman dugu. Horretarako, hitzarmenak egin ditugu Nafarroako Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateekin.

ZENTROA	TITULAZIOA	PLAZAK	ORDUAK	PROGRAMA
Salamanca Unibertsitatea	Psikologiako gradua	1	140	K. Terapeutikoa
Euskal Herriko Unibertsitatea	Psikologiako gradua	1	200	Aldatu
Salamanca Eliz Unibertsitatea	Psikologiako gradua	1	220	Suspertu
Valentziako Unibertsitatea	Masterra adikzioetan	1	900	Denak
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Gizarte laneko gradua	1	200	Suspertu

15. TAULA Praktiketarako plazak 2017/2018

ZENTROA	TITULAZIOA	PLAZAK	ORDUAK	PROGRAMA
Euskal Herriko Unibertsitatea	Masterra Psikologia Osasun K.	1	600	Aldatu
Universidad de Navarra	Máster Psicología G. Sanitaria	1	300	K. Terapeutikoa/ Aldatu
Euskal Herriko Unibertsitatea	Gizarte Hezkuntzako Gradua	1	505	Suspertu
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Gizarte Laneko Gradua	1	200	Suspertu
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Masterra Esku-Hartze Sozialean	1	150	K. Terapeutikoa

16. TAULA Praktiketarako plazak 2018/2019

DATUAK 8

Datu ekonomikoak eta dirulaguntzak

Urtero bezala, gure kontuen kanpo-ikuskapen ekonomikoa egin dugu, eta, 2018an ere, BDO Quota Auditores SLk aldeko iritzia eman du. Txosten osoa eskuragarri dago gure webgunean.

GASTU MOTA	EUROS
KANPO-ZERBITZUAK	430.134,68
LANGILERIA GASTUAK	1.295.924,53
AMORTIZAZIOAK	12.308,57
PRESTAKUNTZA	3.542,05
GASTUAK GUZTIRA	1.741.909,83
SARRERAK	EUROS
NAFARROAKO GOBERNUA	
NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA	866.509,02
POISES PROIEKTUA	30.310,26
FORU PLANA	33.006,09
GIZARTE GAIAK	12.500
ESPETXE ZERBITZUAK	20.342,16
LANGABEZIA	53.700
INSOLA PROIEKTUA	21.000,96
IRUÑEKO UDALA	10.649
LABORAL KUTXA	5.000
RURAL KUTXA	20.000
LA CAIXA GIZARTE EKINTZA	4.000
CAN/CAIXA FUNDAZIOA	75.000
ERABILTZAILEAK	385.817,40
CARITAS ALOKAIUENGATIK	120.200,40
BANAKAKOEN EMAITZAK	43.849,82
EMAITZAK GAUZATAN	16.987
BESTE UDAL BATZUK	9.981,96
PREBENTZIO LANTEGIAK	16.110,81
BESTELAKOAK	22.791,86
SARRERAK GUZTIRA	1.767.756,74
EMAITZA	25.846,91

ERAKUNDE ETA ENPRESA LAGUNTZAILEAK

Nafarroako Gobernua  **Gobierno de Navarra**

 **Ayuntamiento de Pamplona**
Iruñeko Udala

 **Ayuntamiento de Tudela**





AYUNTAMIENTO del VALLE de EGÚES
EGUESIBARKO UDALA

 **laCaixa**


Caritas
Diocesana de Pamplona-Tudela

 **FUNDACIÓN CAJANAVARRA**

 **CAJA RURAL DE NAVARRA**




LABORAL kutxa


ARPA
ABOGADOS - CONSULTORES


ian
GRUPO ALIMENTARIO


PIQUER
asesoría laboral


IZARRA
HEMEN, ZURE ONDORRI
AGUL, A TU LADO


anel


MAIER
NAVARRA


FAGOR
Fagor Ederlan Tafalla


Mutua navarra
MUTUA COLABORADORA
CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº21


suma
LABORAL



Unión Europea

Fondo Social Europeo
"El FSE invierte en tu futuro"

- Nafarroako Osasun Zerbitzua/Osasunbidea
- Gizarte Eskubideetako Lehendakariordetza
- Hezkuntza Departamentua
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
- Nafarroako Enplegu Zerbitzua - Nafar Lansare
- Burlatako Udala
- Arangurengo Udala
- Uharteko Udala
- Los Arcosko Udala
- Orkoiengo Udala
- izarbeibarko Mankomunitatea
- Urdazubiko Udala
- Lekunberriko Udala
- Los Arcosko Mankomunitatea

Kongregazio erlijiosoak:

- Salestarren IO
- Karitatearen Mesedetakoak
- Bordeleko Familia Santua
- For Kristal-denda
- Arrasate Okindegia
- Josexo Charral Frutak eta Barazkiak
- Logisva Power SL
- Lacturale
- Postres tradicionales Ultzama

Nafarroako Gizaki Helburu Fundazioak honako hauetan hartzen du parte:


PROYECTO HOMBRE

Honako honen aitortpena jaso du:


ONG ACREDITADA
FUNDACIÓN LEALTAD


re concilia
EMPRESA RESPONSABLE EN CONCILIACIÓN



FITXA TEKNIKOA 9

Parte hartu nahi duzu gure proiektuan?



LAGUNDU

Nahi izanez gero, ekarpen solidario bat egiten ahal duzu, bazkide eginez edo aldian behineko ekarpen bat eginez, eta, hala, gure proiektuaren finantzazioan laguntzen ahal duzu.

PARTE HARTU

Zure denbora eta zure lana izaten ahal da zure ekarpenik garrantzitsuenak. Horregatik, gu ezagutzeko eta Nafarroako Gizakia Helburu Proiektuaren boluntario egiteko aukera ematen dizugu, gure jardueretako batean lagundu dezazun.



Bisitatu gure webgunea

projectohombrenavarra.org



Deitu iezaguzu

948 291 865

EZAUGARRI OROKORRAK

Titularra

Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa

Presidentea

José María Jiménez Nespereira Jn.

Programen zuzendaria

Alfonso Arana Marquina Jn.

Lurraldea

Nafarroako Foru Komunitatea

LANGILEAK (2018-12-31)

Kontratuak

42

Boluntarioak

77

EGITURA ETA HORNIKUNTZA

Egoitza eta Komunitate Terapeutikoa

Iruñea Etorbidea, 59. 31200 Lizarra

Tel.: 948 55 29 86

Gizarte Egoitza eta Egoitza Nagusia

Zaragoza Etorbidea, 23. 31005 Iruñea

Tel.: 948 29 18 65

Fax: 948 291 740

info@proyectohombrenavarra.org

www.proyectohombrenavarra.org

- * Zerbitzu Nagusiak
- * ALDATU: Mendekotasunak
Artatzeko Zentroa
- * Hasierako diagnostikoak
- * Gizarteratzea
- * Harrera Zerbitzua (Komunitate
Terapeutikorako Prestatzea eta Motibatzea)
- * SUSPERTU Programa

ZUK ERE GUK BEZAIN ARGI IZAN DEZAZUN.

Lealtad fundazioak gardentasunaren eta jardunbide onen 9 printzipioak betetzen dituzten GKEei ematen die bere zigilua.

Hau da zigiluaren. Helburua: zuri laguntzea erabakitzen zer GKEm eman laguntza.

Aurkitu zure GKEa helbide honetan: www.fundacionlealtad.org

